

## **JAGONET**

### **2003. URTEKO ERRENDAPENA**

Euskararen erabilerari buruzko kontsulta-zerbitzua da JAGONET, Euskaltzaindiak Internet bidez euskaltzeleei laguntzeko sortua. 2001eko martxoaren 21ean hasi zen jendaurrean lanean, Joxe Ramon Zubimendi idazlearen ardurapean. Euskaltzain urgazlea da Zubimendi eta Jagon saileko Corpus batzordeko idazkaria. Egun erdiz ari da lanean JAGONET zerbitzuan, Euskaltzaindiak berariaz izendatutako laguntzaileekin:

<i>Jagon</i> sailburua:	Andres Urrutia
<i>Iker</i> sailburua:	Beñat Oihartzabal
Hiztegigintza batzordetik:	Xabier Kintana eta Miriam Urkia
Gramatika batzordetik:	Patxi Goenaga eta Jesus Mari Makatzaga
Onomastika batzordetik:	Mikel Gorrotxategi eta Patxi Salaberri
Euskara Batuko batzordetik:	Pello Salaburu

### **2003ko datuak**

JAGONETek bi atal eskaintzen ditu Euskaltzaindiaren webgunean:

1. Galde-erantzunen datu-basea, egundaino emandako erantzunak bilduz-bilduz doana. Datu-base horren edukia gero eta lagungarriago ari zaie gertatzen euskaltzaleei: 6.621 bisitari izan zituen 2001ean (egunean 24), 12.073 bisitari 2002an (egunean 33) eta 28.121 bisitari 2003an (egunean 77). Kontuan hartzekoa da, gainera, bisitari bakoitzak bilaketa bat baino gehiago egiten duela aldiro datu-base horretan (41.753 bilaketa 2003an).

2. Galdeleku informatikoa. Posta elektronikoko bidezko zerbitzu zuzena eta banakakoa da (eta pribatua da galdegilearekiko). Bertan jasotako galdera ia guztiak (%99) erantzun dira 2003an ere: zehatzago esateko, 892 erantzun eman dira bederatzi hilabetetan (iaz urte osoan adina).

### **Lan-prozedura**

Hauxe da, urratsez urrats, JAGONETeko lan-prozedura:

1. Galdera jaso

2. Galdera erantzun: arduradunak berak, ahal badu; bestela, laguntzaile-etako batek
3. Erantzundako galderak aztertu eta datu-basean sartzekoak hautatu
4. Datu-basean sartzeko hautatutako galde-erantzunak berridatzi (laburtu eta)
5. Berridatzitako testu horiei kode informatikoak erantsi (letrakerak-eta bereizteko)
6. Kodetutako testu berridatzia datu-basean sartu
7. Galde-erantzun sartu berria ongi txertatu dela ziurtatu

### Zer kontsultatu JAGONETen

Datu-basearen edukia sei atal nagusitan sailkatua dago: morfologia, lexikoa, onomastika, sintaxia, idazkera eta ahoskera. Atal bakoitzak, berriz, hainbat azpiatal ditu: aditzen erregimena, aditzaren ingurukoak, deklinabidea, atzizkiak, juntagailuak, zenbakiak... Nolanahi ere, bilaketa egiteko ez dago antolaketa horren berri jakin beharrik; izan ere, euskaltzaleak aski du bere zailtzari dagokion gaia edo hitz nagusia (esanguratsuen) idaztea.

### Zer ez galdetu JAGONETen

Euskaltzaindiaren erabakiz, euskararen erabilerari buruzko galderak erantzuteko tokia da JAGONET; baina teoria mailako erantzunak emateak beste baliabide batzuk eskatzen ditu (horretarako daude irakasleak eta gramatika-liburuak) eta hizkuntza-arazoak behar bezala aztertuak izatea alde zuretik. Horrez gainera, eta Euskaltzaindiaren erabakiz:

– JAGONET ez da erdarazko hitzen edota erdal esapideen euskal ordai-na galdetzeko lekua; hau da, ez da erdara-euskara nahiz euskara-erdara hiztegien kontsultategia. Horretarako daude orain arte argitaratutako hiztegiak eta, batasunerako erabakitako hitzen formari dagokionez, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua.

– JAGONET ez da terminologiaz arduratzeko zerbitzua.

– JAGONET ez da itzulpen-zerbitzua.

– JAGONETen eginkizuna ez da izen-deituren jatorria edota esanahia azaltzea.

– JAGONETen eginkizuna ez da euskal hitzen etimologia azaltzea.

– JAGONETen eginkizuna ez da ikerkuntzarako laguntza bila datorrenari argibideak ematea: adibidez, autore jakin batek halako egitura erabili ote duen edota zenbat bider erabili duen galdezka datorrenari laguntzea.

– JAGONETen eginkizuna ez da Euskaltzaindiaren erabakien zergatia azaltzea. Euskaltzaindiak badu bere aldizkari ofiziala, *Euskera* izeneko, eta hor jakinarazten ditu bere erabakiak eta gainerako jakingarriak (*Euskera* agerkarian eta, 1994az geroztik, *Euskaltzaindiaren Arauak* izeneko argitalpen-karpetetan).